

Bideo-lehiaketa

“Nire belaunaldia, jasangarriagoa”

DEIALDIAREN OINARRIAK

2023/24 edizioa

Zementuaren eta Ingurumenaren Lan Fundazioak (aurrerantzean, CEMA fundazioa. IFK: G28515039. Helbidea: C/José Abascal, 53 1º, Madril) “**Nire belaunaldia, jasangarriagoa**” bideo-lehiaketa (aurrerantzean, Lehiaketa) iragarri du, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ezagutarazteko eta hezkuntza-komunitateari ohartarazteko zeinen garrantzitsua den denek batera aurre egitea desberdintasunari eta klima-aldaketari.

Lege-oinarri hauek (aurrerantzean, Oinarriak) lehiaketan parte hartzeko modua, deialdiak eta sari-banaketa arautzea dute helburu.

EMADE-Consultoría, educación, promoción y desarrollo, S.L.U. (aurrerantzean, EMADÉ. Helbidea: C/ Italia, nº 113, CP 45005 Toledo. IFK: CIF B-83369629) arduratuko da Lehiaketa kudeatzeaz.

Lehiaketa

CEMA fundazioak antolatutako Lehiaketa honetan, gehienez 3 minutuko bideo bat (aurrerantzean, Sorkuntzak) egin beharko dute parte-hartzaileek, eta aprende@emadesl.com helbide elektronikora bidali.

Sorkuntzek Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) hauetako batekin erlazionatuta egon behar dute (parte-hartzaileek aukeratuko dute), zementuaren sektoreak helburu horiei laguntzen baitie gehien bere balio-katean (informazio gehiago nahi izanez gero, <https://www.fundacioncema.org/observatorio-esg/#contribucion-ods>):

- 5. GJH - Genero-berdintasuna.
- 6. GJH – Edateko ura eta saneamendua.
- 7. GJH - Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea.
- 8. GJH – Landuina eta hazkunde ekonomikoa.

- 9. GJH - Industria, berrikuntza eta azpiegitura.
- 11. GJH - Hiri eta komunitate iraunkorrak.
- 12. GJH - Ekoizpen eta kontsumo arduratsua.
- 13. GJH – Klima babesteko ekintza.
- 14. GJH - Uretako bizi-tza.
- 15. GJH - Lehorreko bizi-tza.
- 17. GJH – Itunak, helburuak lortzeko.

Sorkuntzen helburua da GJH horiek ezagutaraztea eta haiek betetzeko denak inplikatztea.

Edukiak jatorrizkoa izan behar du: ahotsek, musikak eta erabiltzen diren gainerako soinu-elementu guztiek ezin dute eskubideen menpe egon, edo jatorrizkoak izan behar dute, eta antolatzaileek egokitzat jotzen dituen kanaletan igorri eta argitaratu ahal izango dituzte, inolako kalterik jasan gabe. Parte-hartzaileen ardura izango da puntu hori betetzea eta etorkizunean erreklamazioei erantzutea, halakorik balego.

Gero, epaimahai batek ebaluatuko ditu Sorkuntzak, irabazlea aukeratzeko, baldin eta Oinarriotan xedatutakoa betetzen badute.

Lehiaketaren iraupena

2023/09/01eko 00:00etatik (GMT+1) 2023/05/31eko 00:00era arte (GMT+1) bitartean izena ematen duten eta bidaltzen diren Sorkuntza guztiek parte hartu ahal izango dute Lehiaketan. Ez dira Lehiaketan onartuko epe horretatik kanpo bidalitako Sorkuntzak.

Parte-hartzaileen deskribapena

2023/24 ikasturtean CEMA fundazioaren *“Belaunaldi Jasangarriagoa”* izeneko Ingurumen Hezkuntzako Kanpainaren barruan sartzan den prestakuntza-tailerra jaso duten DBHko eta Oinarrizko Mailako eta Erdi-mailako LHko ikasleen gelei zuzenduta dago Lehiaketa.

Ezin izango dute Lehiaketan parte hartu goian adierazitako baldintzak eta oinarriotako gainerakoak betetzen ez dituzten gela edo ikastetxeek.

Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, Oinarri hauek onartuko dira, eta berriaz errespetatuko dira antolatzaileek Oinarriei buruz hartzen dituzten interpretazio-erabakiak. CEMA fundazioak beretzat gordeko du Oinarriak betetzen ez dituzten parte-hartzaileak kanporatzeko eskubidea, eta, bereziki, Oinarri hauen aurka parte hartzen duen edonor kanporatzeko eskubidea.

Oinarri hauek onartuz gero, parte-hartzaileek adieraziko dute ulertzen dituztela zehaztapenak eta baldintzak, eta hitzemango dute kasu honetan aplikagarria den indarreko araudia beteko dutela. Horrenbestez, Lehiaketan parte hartuz soilik, Oinarriei eta legeei erabat eta modu atzeraezinean jarraituko diete.

Parte-hartzaileak kontrakoa adieraziz gero (unea gorabehera), berehala geratuko da Lehiaketatik kanpo, eta CEMA fundazioak ez du inolako konpromisorik bete beharko parte-hartzailearekin.

Oinarri hauek edonork kontsulta ditzake <https://generacionsostenible.fundacioncema.org/> plataforman. Zalantzarik izanez gero, ikastetxeak antolatzaileekin harremanetan jarri ahal izango dira, bide hauetako bat erabiliz:

- Telefonoa: 91 157 4457
- Helbide elektronikoa: mgarcia@emadesl.com

CEMA fundazioak beretzat gordeko du Lehiaketa honen baldintzetan aldaketak egiteko edo haren mekanikari eta sariei buruzko ondoz ondoko eranskinak gehitzeko eskubidea, baldin eta aldaketak justifikatuta badaude edo parte-hartzaileei kalterik egiten ez badiete eta behar bezala jakinarazten bazaizkie, Oinarri hauei bezainbesteko publizitatea eginez. Lehiaketa atzeratu edo bertan behera utzi behar izanez gero, Oinarrietan adieraziko da; hortaz, parte hartu ondoren ere kontsultatu behar lirateke Oinarriak.

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzen duen gela bakoitzak gehienez hiru Sorkuntza aurkez ditzake Lehiaketara.

Irakasleak bere gela Lehiaketan inskribatzen badu, aprende@emadesl.com helbidera bidali behar du Sorkuntza, Oinarri hauetan adierazitako epeen barruan, eta datu hauek emango ditu:

- Ikastetxea eta parte hartuko duen gela.
- Sorkuntza aurkeztu duen irakaslearen izena.
- Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Aurkeztutako Sorkuntzan parte hartu dutenen irudi-eskubideen inguruko dokumentazioa eskura izatea.

Balidatu ondoren, CEMA fundazioaren YouTube-ko kanalean kargatuko dira Sorkuntzak, haiek jasotzeko epea amaitzean.

Lehiaketa doakoa da.

Sorkuntza garailea hautatzea

CEMA fundazioko Batzorde Betearazleko kideek osatuko dute epaimahaia. Lehiaketan parte hartzeko epea amaitzean, Sorkuntza garailea aukeratuko du epaimahaiak, sormena, originaltasuna eta dagokion gaiarekin duen lotura aintzat hartuta. Erabakia apelaezina izango da, eta epaimahaiaren irizpidearen arabera izango da soil-soilik.

Sorkuntza garaile bakarra aukeratuko da guztira.

CEMA fundazioak beretzat gordeko du Lehiaketa hutsik uzteko eskubidea, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, Sorkuntzetako batek berak ere ez badu saria jasotzeko maila nahikoa.

CEMA fundazioak beretzat gordeko du Lehiaketan parte hartzen duten guztiek Oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko eskubidea, egokitzen duten duen prozedura erabilita. Ondorio horietarako, edonoiz eskatu ahal izango ditu beharrezko informazioa eta dokumentazioa Oinarriak betetzen direla berresteko. Eskatutako informazioa edo dokumentazioa Fundazioak emandako epearen barruan entregatzen ez bada, berehala kanporatuko da Sorkuntza Lehiaketatik, eta, hala badagokio, saria kenduko zaio, ezer jakinarazi beharrik izan gabe.

CEMA fundazioak beretzat gordeko du Lehiaketaren funtzionamendu egokia eta bilakaera normala eta arauzkoa kaltetzen, aldatzen edo oztopatzen saiatzen diren edo hori lortzen duten parte-hartzaileen Sorkuntzak kaleratzeko edo, hala badagokio, haiei Lehiaketako saria ez emateko eskubidea.

Lehiaketan parte hartuz gero, CEMA fundazioari baimena emango zaio egindako Sorkuntzak erabiltzeko, edozein modalitatetan, jende guztiarentzat eta tratamendurako behar den denboran ustia daitezen.

Parte hartzeko betekizunak

- 2023/24 iasturtean CEMA fundazioaren *“Belaunaldi Jasangarriagoda”* Ingurumen Hezkuntzako Kanpainan parte hartu behar izan du ikasgelak.
- Oinarri hauetako *“Parte hartzeko baldintzak”* atalean jasotako betekizunak betetzea.
- Lehiaketa honetan parte hartzean, honelakorik ez egitea: (i) ideia politikoak edo erlijiosoak zabaltzea, (ii) hirugarrenak iraindu edo kalumniatu, (iii) indarkeriazko hizkerak, lizuna eta mingarria erabili, (iv) Lehiaketaren gaiarekin zerikusirik ez duen edukia argitaratu.

Irabazlearen berri ematea

Lehiaketaren irabazlearen jakinarazpena 2024ko ekainaren 12tik aurrera egingo da.

Posta elektronikoz eta telefonoz emango dio EMADEn enpresak irabazlearen berri parte hartu duen gelaren ikastetxeari.

Saria

Sorkuntza garailea aurkeztu duen gelaren ikastetxeari emango zaio saria. 2.000 €-koa izango da saria (BEZa kanpo). Zenbateko hori nahi duen zerbitzu edo hornidurari emango dio, eta Lehiaketaren antolatzaileek faktura jaso ondoren ordainduko du.

Sariak ezin dira inola ere diruagatik trukatu, ezta beste ezein prestaziotatik ere, irabazleek hala eskatu arren. CEMA fundazioak beretzat gordeko du, behar-beharrezkoa bada, saria antzeko ezaugarriak dituen beste batekin ordeztzeko eskubidea.

Irudia lagatzea

Sorkuntzetan agertzen diren pertsona guztiek egileei irudia lagatzeko baimena sinatu beharko dute. Dokumentu horrek sinatuta egon behar du, eta eskura izan behar da, CEMA fundazioak aurkezteko eskatuz gero. Dokumentazio hori eman ezean, Lehiaketaren prozesutik kanpo geratuko da automatikoki.

Sorkuntzaren bat Lehiaketan sartuz gero, aurkeztu duen irakaslea arduratuko da aurkeztutako Sorkuntzan parte hartzen dutenen irudi-eskubideei buruz eskatzen den dokumentazioa eskura izateaz, Sorkuntza YouTube-n ostatatuko baita.

Lehiaketan parte hartzen duten guztiek CEMA fundazioari soilik emango dizkiote Lehiaketara aurkeztutako Sorkuntzetan erabili den haren irudia ustiatzeko eskubideak; hain zuzen ere, finkatu, kopia, banatu eta jendaurrean zabaltzekoak. Parte-hartzaileek eskubide horiek lagako dituzte, ustiapen-modalitate hauetan: Esku-hartzeak eta jardunak edozein formatu ezagunetan kopiatzea; jendaurrean zabaltzea, telebistan, Interneten eta sare sozialen bidez, eta beste edozein komunikazio-teknologia erabilita, banda zabalekoa edo finkokoa, diskografikoa edo inprimatua. Doan lagako dira eskubideak, Lehiaketan parte hartu duen datatik hasita, eta pertsonaren irudiarekin eta ahotsarekin erlazionatutako erabilera guztiei dagozkie, espazio- eta denbora-mugarik gabe, 1/1982 Legean xedatutakoaren arabera (1/1982 Legea, maiatzaren 5koa, ohore-eskubideari, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubideari eta norberaren irudirako eskubideari buruzkoa), bitarteko tekniko ezagunak erabiliz, eta edozein euskarri-motatako edozein aplikaziotarako (batez ere, esparru digitala eta sare sozialak).

Aurreko lagapenen arabera, CEMA fundazioa izango da Lehiaketara aurkeztutako Sorkuntzetan sartzen diren esku-hartze eta interpretazioei dagokienez parte-hartzaileenak diren jabetza intelektualeko eskubide eta irudi-eskubide guztien titularra.

Erantzukizunak

CEMA fundazioak beretzat gordeko du edonoren partaidetza bertan behera uzteko eskubidea, datuak edo Lehiaketa bidegabe manipulatu direla susmatuz gero.

CEMA fundazioak beretzat gordeko du Oinarri hauetan jasotako betekizunak eta parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituen edo Lehiaketaren arauak edo xedea urratzen dituen edozein parte-hartzaile Lehiaketatik kanpo uzteko edo baztertzeko eskubidea.

CEMA fundazioak ez du bere gain hartuko posta elektronikoko arazoengatik edo Interneten funtzionamendu okerragatik datuak galtzearen gaineko erantzukizunik.

Datuen babesa

Parte-hartzaileak badaki tratatu egingo direla “Nire belaunaldia, jasangarriagoa” Lehiaketan parte hartzearen harira edo behin harremana etenda ere CEMA fundazioari eman dizkion datuak, aurrerantzean ematen dituenak, irudiak grabatuta biltzen direnak eta Interneteko

webguneetan, hari gabeko sareetan edo beste bitartekoren batean nabigatuta lortzen direnak ere, eta horretarako baimena ematen du.

Parte-hartzaileak ziurtatzen du emandako datu pertsonalek zehatzak eta egiazkoak izan behar dutela, eta hitzematen du behar bezala eguneratuta edukiko dituela eta CEMA fundazioari jakinaraziko diola haietan aldaketarik baldin badago.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Arduraduna: CEMA – ZEMENTUAREN ETA INGURUMENAREN LAN FUNDAZIOA

Xedeak: Jarduera kudeatzea.

Legitimazioa: Jarduera gauzatzea eta baimena ematea.

Datuak tratatzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gure "Pribatutasun-politika" hemen: <https://www.fundacioncema.org/politica-de-privacidad/>

Edonola ere, datuak xede horretarako tratatzeko baimena ezeztagarria da, eta edonoiz kendu ahal izango da, edo aipatutako eskubideak datuak babesteko informazio osagarrian adierazitako moduan erabili ahal izango dira.

Baliogabetasuna

Oinarri hauetako edozein xedapen osorik edo partzialki baliogabetzat edo eragingabetzat jotzen bada, baliogabea edo eragingabea den xedapena edo xedapen-zatia izango da hala. Horrenbestez, gainerako Oinarriek indarrean jarraituko dute, eta xedapen edo xedapen-zati hori ez jarritakotzat hartuko da, non eta ez dien gainerako Oinarriei ere eragiten, haietarako funtsezkoa delako.

Jurisdikzioa eta lege aplikagarria

Oinarri hauek Espainiako legeriaren arabera interpretatu eta arautuko dira. Oinarrien aplikaziotik, kontsultatik, erabileratik edo edukitik eratorritako edozein kontu gatazkatsu konpontzeko, parte-hartzaileak eta CEMA fundazioak berariaz egiten diote uko egoki lekietan edozein eskumeni, eta Madrilgo epaitegi eta auzitegien jurisdikzio eta eskumen eksklusiboaren pean jardungo dute.

Madrid, 2023ko abenduaren 20a